

OGI ZERUKOA D 27-36

1 Ogi zerukoa, gizonen ogia.
hor da hor Jainkoa, apalduz jautsia.
Hau misterioa : Nausien Nausia,
gu ezdeusen janaria.

Pain du ciel, mystère d'abaissement

3 Ogi Kristotua, fede hazkurria,
Jainkora mundua piztuz goi-argia.
Haiza bekatua, denak bozkaria
izan denen iguzkia.

Pain devenu Christ

4 Ogi Kristotua, bihotzen indarra,
zeruko zerua, zorion bakarra,
bakera mundua, jendeak batera
denak beude zuri beira.

Tourne les hommes vers toi

DUGUN AIPA D 10 *Pange lingua*

1 Dugun aipa Gorputz hunen misterio handia,
eta Odol sainduaren indar salbagarria,
lurrekoak salba ditzen, Jainkoak ixuria.

Chantons le mystère de l'Eucharistie

2 Eman zaiku, sortu zaiku, Ama hartuz Maria.
Mundu huntan hedatu du bere hitzen hazia ;
Itzultzean utzi dauku Sakramendu handia.

Devenu homme, il a semé la Parole

3 Azken gauan egin zuen, anaiekin afari :
jan moldean osoki zen jarraiki Legeari ;
gero bera eskaini zen Hamabien janari.

Au dernier repas, il s'est offert comme nourriture

4 Jainko hitzak hitz batez du Gorputz egin ogia,
arno hutsa Odol saindu du bilakarazia.
Dudetarik fedea du zaintzen bihotz garbia.

Il préserve du doute les cœurs purs

TANTUM ERGO

**5 Sakramendu handi huni ahuspez gauzkiola.
Gauza saindu guziera hau nagusi dadila.
Sinesteak argi beza gure begi ahula.**

Prosternons-nous devant ce grand Sacrement

**6 Jainko Aita Semeeri kantu-ta bozkario.
Heier agur, ospe, indar, esker-ta amodio ;
eta bien Gogoari orobat laudorio. Amen.**

Honneur gloire et louange au Père, au Fils et à l'Esprit



ESKERRAK EMAN X 5

Benedicamus Domino

Eskerrak eman,
menderen mendetan,
eskerrak eman Jainko Jaunari.
Eskerrak eman Jaunari,
eskerrak eman,
eskerrak eman Jainko Jaunari.
Eskerrak eman Jaunari,
eskerrak eman Jaunari.
Eskerrak eman Jaunari,
eskerrak eman Jaunari,
eskerrak eman Jaunari,
eskerrak eman Jaunari.
eskerrak eman Jaunari,
eskerrak eman Jaunari.
eskerrak eman Jaunari.
eskerrak eman Jaunari.

Rendons grâce au Seigneur !

ZURE LEKUKO T 8

**Zure lekuko gaitu Elizak
gu igortzen munduari,
izan ditela gure urratsak,
Kristo, zure mezulari.**

Témoins du Christ, envoyés au monde

4 Bataiatua den bati
manu hau da emana :
obraz egin dezan beti
Jainko-hitzak diona,
orotan dadien aurki
eginez Jainko-lana.

Mettons en pratique la Parole de Dieu

6 Jainkoaren haurrek dugu
familia egiten.

Munduak erran behar du :
zer bihotz ona duten !
Beraz oro esku-esku
elgarrekin ar gaiten.

« Voyez comme ils s'aiment »

***Biakorriko beila eta San Antoniko beila
Muskildin : agorrilaren 21an igandez***

Ibarreko beila : agorrilaren 31an asteazkenez

Orriako beila : irailaren 7an asteazkenez

***Elizbarrutiko beila Lurden :
irailaren 18an igandez***

***Lapurdi irratia 30 urte Irulegin irailaren 22an
ostegunez. Egitaraua : www.lapurdi.net***



✠ Entzun, Jainkoa, otoi ! entzun !
**Zatozkit, Jauna, laster lagun !
Ospe Aitari Semeeri
bai Izpirtu Sainduari !
Lehen bezala orai ere,
hala dadila betiere ! Alleluia !**

SAINDUEKIN W 2

1 Sainduekin otoi eta lan
Dugun egin bizi huntan.
Zeruraino gaiten denak joan,
Zerukoek, esku eman !

Que les saints nous guident tous vers le ciel

**Egiako denen Herrian
Kristok denak han bil gaitzan,
Gu lurrean, zuek zeruan,
Oraitik bat gaiten izan. (bis)**

Nous sur terre, vous au ciel, soyons unis

2 Apostolu eta Martirak,
Baginitu zuen karrak :
Fedearen goiko dirdirak
Argi ditzan herritarrak.

3 Apezpiku, apez sainduak
Ardientzat higatuak,
Zuen baitan bizi zen suak
Pitz ditzala epelduak.

5 Kristau kartsu eta zuzenak,
Ait-et-ama fededunak,
Lur berean orai daudenak
Atxik zuek bezein onak.

6 Jainkoaren Ama maitea,
Gure ganat, otoi, beha.
Argi zazu gure bidea
Eman Kristoz gozatzea.

LOIOLA 2022-VII-14 EUSKALDUNEN BEILA

BEZPERAK

**Loiolako San Ignazioren
konbertsioaren
500. garren urteurrena**

14. SALMOA

**Nor dauke Jauna, zure baitan,
Zu zauden mendi saindu hartan ?**

Seigneur, qui séjournera sous ta tente ?

Qui habitera ta sainte montagne ?

Bihotza garbi dabilana,
Zuzen zuzena den gizona;
Egiari bai datxikona,
Bertzez gaizkirik ez diona.

Celui qui se conduit parfaitement,

qui agit avec justice et dit la vérité selon son cœur.

Bertzen kaltetan ez doana,
Auzoen trufan ez dagona,
Tzarrentzat sorik ez duena :
Handi baitauka fededuna.

Il met un frein à sa langue, ne fait pas de tort à son

frère et n'outrage pas son prochain.

Hitz eman-eta hitzekoa,
Diru xurgatzen ez baitoa.
Jauntzen ez dena joz gaixoa :
Sekulako xut holakoa.

Il prête son argent sans intérêt,

n'accepte rien qui nuise à l'innocent.

Ospe Aitari, Semeeri,
Bai Izpirtu Sainduari.
Lehen bezala, orai ere :
Hala dadila betiere.
Nor dauke Jauna...

111. SALMOA

**Jaun zerukoa maite duena
Legean doa xuxen xuxena.**

*Heureux qui craint le Seigneur,
qui aime entièrement sa volonté !*

Bai dohatsua Jaunaren beldur den gizona,
Haren nahian goza gozatuz dabilana.
Semeak azkar izanen ditu mundu huntan ;
Zuzenen haurrak Jainko Jaunaren eskuetan.

Haren etxean bada ontasun, gozotasun,
Haren barneko argia deusek ezin ilun.
Ilunbetan du zuzenen argi dirdiratzan,
Hain baita ezti, bihotz oneko, eta zuzen.

Denentzat badu bai ele ona, bai laguntza,
Dauzkanak oro zuzenkienik badabilta.
Ezta sekulan lerratu eta eroriko ;
Gizon zuzena aipatua da sekulako.

Ez berri beltzen beldurrik nehoiz pizten ari ;
Haren bihotza osoki dago Jainkoari.
Bihotza dauka bakean eta beldur gabe,
Bere etsaiak ahalgetuak ikus arte.

Behartsuentzat badu laguntza, badu argi ;
Kopeta gora agertuko da lorioski.
Gizon makurra ihartuko da herra minez ;
Gizon makurren lehia beltzak indarrak ez.

Ospe Aitari, gizon egin den Semeari,
Elizan ari den Izpiritu Sainduari.
Lehen bezala Heieri ospe orai ere :
Hala dadila menderen mende betiere.
Jaun zerukoa ...

**Jesus Jauna,
erakuts ezadazu bihozduen izaiten,
hartze duzun bezala zerbitzatzen,
karkulan ari gabe gogotik emaiten,
min-har beldur gabe azkar gudukatzen,
pausurik bilatu gabe beti lan egiten eta
zure nahia betetzen dutala jakiteaz
beste saririk igurikatu gabe
neure buruaren emaiten.**

**Loiolako Ignazio saildua
(1491-1556)**

AGUR, INDAR, GORESMEN P 14

Le salut, la gloire, la puissance sont à notre Dieu !

1 Agur, indar, goresmen, aintza Jainkoari !
Egian eta zuzen baita beti ari.
Agur, indar, goresmen : Amen, Alleluia !
Alleluia, alleluia, alleluia !

Petits et grands : louez-le !

2 Gorets Jauna kartsuki, haren hautetsiek
Bai handi eta tiki, fededun guziek.
Gorets Jauna kartsuki : Amen, Alleluia !
Alleluia, alleluia, alleluia !

Louez le Dieu du ciel et de la terre ...

3 Zeru lurren Jaun baita, guziahalduna
Bozaren bozez kanta, gorets jaunena Jauna.
Zeru lurren Jaun baita : Amen, Alleluia !
Alleluia, alleluia, alleluia !

Voici le Jour des Noces de l'Agneau !

4 Bildotsaren ezteiak : huna bai Eguna !
Eman du espos gaiak jauntzi ederrena.
Bildotsaren ezteiak : Amen ! Alleluia !
Alleluia, alleluia, alleluia !



ARGIAREN EGILEA Lucis Creator

1 Argiaren Egilea,
Iduzkia duzu piztu,
Argi berriz apaintzeko
Munduaren hastapena.

2 Goiz arratsen artekoa
Eguna deitu duzuna,
Gaua jausten ari baita,
Entzun dei eta nigarrak.

3 Hobenen gatik arimak
Ez dezala gal Bizia,
Gain hartakoak ahantziz
Eta gaizkirat lerratuz.

4 Zeru atean jo beza,
Bizi sarian sar bedi :
Gal-bidetik baztertzean,
Garbi bedi gaitzatarik.

5 Entzun, Aita guziz ona,
Eta Zuk, Jainko Semea,
Izpirituarekin bat,
Nausi menderen mendetan. A-men.

KANTUZ ARI ZAIT NERE ARIMA Magnificat

Kantuz ari zait nere arima Jainkoari
Haren goresle kantuz ari.
**Haren loriaz bozkariotan dut gogoa :
Salbatzaile dut nik Jainkoa.**

Naizen neskato apal hau baitu hautatua,
Mendeek neri : "Dohatsua" !
**Zoin handi nitan Jainko Jaun guziz indartsua !
Haren izena zoin saildua !**

Urrikalmenduz betea dago mendez-mende,
Sineste duten jenden alde.
**Bere besoan duen indarrak Harek ditu
Bihotz hantua barreiatu.**

Beren alkitik handi-mandiak kendu ditu,
Apalak aldiz goraltxatu.
**Gose zaudenak nasaiki ditu gozarazi.
Aseak aldiz hutsik utzi.**

Behatu dio Izrael bere jendeari.
Lehen bezala urrikari.
**Erran baitzuen gintuela gu lagunduko
Abrahamtarrak sekulako.**

Ospe Aitari, gizon egin den Semeari,
Bai Izpiritu Sainduari.
**Lehen bezala Heieri ospe orai ere !
Hala dadila betiere !**

Jondoni Petreren lehen gutunetik 5, 1-4.

Zuen arteko eliz buruzagieri nik, heiek bezala eliz buruzagi eta Kristoren sofrikarioen lekuko naizenak eta gero agertuko den aintzaren partaide ere naizen hunek, eskatzen diotet : alha zazue Jainkoak zuen esku ezarri duen artaldea, zaint zazue, ez gogo kontra, gogo onez bai, Jainkoak nahi bezala ; ez irabazi ahalgegarri batengatik, bihotz-zabaltasunez bai ; ez zaintzera eman zaizkizuenen gain nagusitasuna finkatuz, baizik artaldearentzat etsenplu izanez. Hala, artzain nagusia agertuko denean, zimelduko ez den aintzazko korona ukanen duzue.

Première lettre de saint Pierre 5, 1-4.

Quant aux anciens en fonction parmi vous, je les exhorte, moi qui suis ancien comme eux et témoin des souffrances du Christ, communiant à la gloire qui va se révéler : soyez les pasteurs du troupeau de Dieu qui se trouve chez vous ; veillez sur lui, non par contrainte mais de plein gré, selon Dieu ; non par cupidité mais par dévouement ; non pas en commandant en maîtres à ceux qui vous sont confiés, mais en devenant les modèles du troupeau. Et, quand se manifesterà le Chef des pasteurs, vous recevrez la couronne de gloire qui ne se flétrit pas.



Otoi, entzun gaitzazu !

**JAUNAREN OTOITZA
Gure Aita zeruetan zirena
Saindu izan bedi zure izena
Etor bedi zure erreinua
Egin bedi zure nahia
zeruan bezala lurrean ere
Emaguzu gaur egun huntako ogia
Barkatu gure zorrak
Guk ere gure zorduner
Barkatzen diegunaz geroz
Ez gaitzazula utz tentaldian erortzen
Bainan atera gaitzazu gaitzetik.**